

**UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2021)**  
**I. ETA II. MODALITATEA**

**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda**

**Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:**

**UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2021)**

**Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Ikerketaren Kudeaketa Zuzendaritzak jasotako eskaerak aztertu ditu, ondoko alderdiak aintzat hartuz:**

- a) 3. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea eskatzaileen aldetik.
- b) 4. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea, tesi zuzendari izateko proposaturiko pertsonen aldetik.
- c) 6. Oinarrian xedaturiko aurkeztu behar den dokumentazioa

**Eskaera behin-behinean onartu zaien eskatzaileek ez dute izapiderik egin behar.**

**Eskaera zuzentzeko eskatu edo behin-behinean baztertu zaien pertsonak hamar eguneko epea (2021eko abenduaren 15etik 29ra bitartean, biak barne) izango dute dokumentazioa edo alegazioak aurkezteko. Behin epe hau bukatuta, zuzenketak egin ez dituztenak ukotzat joko dira.**

**Deialdiaren behin-behineko erabakia argitaratu aurretik -7. oinarrian zehaztutako irizpideen arabera ebaluatzeko behin betiko onartutako eskaeretako puntuazio osoak sartuko dituena-, I eta II modalitateetan onartutako merezimenduen behin-behineko zerrenda argitaratzen da. Zerrenda hau eskaerak aurkezteko fasean erregistratutako merezimenduak berrikustetik prestatu da.**

**Hauek dira zerrenda honetan berrikusitako alderdiak, merezimenduei dagokienez:**

- *Graduko espedientearen edo baliokidearen batez besteko nota (I eta II modalitateetarako balio duen betekizuna/merezimendua)*
- *Euskararen ezagutza egiaztatzen duen ziurtagiria (I modalitateetarako balio duen merezimendua, II. Modakitateetarako C1 betekizuna)*
- *Honako baldintza hauek betetzen dituzten bi pertsona tesi zuzendari egotea: batek plaza iraunkorra izan behar du eta dagoeneko defendatuta dauden bi doktorego tesi edo gehiago zuzenduta izan behar ditu; besteak lanaldi osoko kontratua izan behar du UPV/EHUrekin, eta defendatu den doktorego tesi bat baino gehiago zuzendu ez izana (I eta II modalitateetarako balio duen merezimendua).*
- *Hizkuntza ez ofizialak jakitea. Kontutan hartuko dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2, C1 edo C2 mailak adierazten dituzten ziurtagiriak (I eta II modalitateetarako balio duen merezimendua).*
- *Euskararen arloan egindako ekarpenak. Ekarpeneak dauden ala ez adieraziko da, ebaluazioa egin gabe. Irizpide honen ebaluazioa euskara batzordeak egingo du, eta emaitza behin-behineko ebazpenean argitaratuko dugu (II. modalitateetarako balio duen merezimendua).*

**IAEk onartutako merezimenduak begiratu ahal izango dituzte eskatzaileek, eta lehenago azaldutakoaren arabera okerrak direla uste badute, aurrean aipatutako 10 eguneko epean zuzenketak egin ahal izango dituzte edo alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte (2021eko abenduaren 15etik 29ra bitartean, biak barne).**

**Deialdiko oinarrien arabera, ez dira inola ere onartuko eskaerak aurkezteko epetik kanpo lortutako merezimenduak edo eskaera aurkezteko epean adierazi ez direnak.**

Alegazioak aurkezten ez badira, ulertuko da hautagaia ados dagoela onartutako merezimenduekin, eta, beraz, ez du bestelako izapiderik egin beharko.

**Zuzenketak eta alegazioak bide hauetatik aurkeztu ahalko dira:**

**Euskarri fisikoan:**

UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan edo edozein posta bulegotan aurkez daitezke administrazio bidalketaren bidez, hau da, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuta Postetxeko langileek lehenengo orriari zigilua jar dezaten eta, behin hori eginda, posta ziurtatuaren bidez igorri hona: *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala), Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa, z/g, 48940 – Leioa (Bizkaia).*

**Euskarri elektronikoan:**

- **Dokumentazioa erregistro elektronikoan** aurkeztuz: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Erregistro elektronikoa erabiliz gero, "Nora" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "PIF 2021".

**Aipatutako aurkezpen-bide guztiek baliogarritasun bera dute. Beraz, interesdunei bakar bat erabiltzeko eskaera luzatzen zaie.**

Leioa, 2021eko abenduaren 14an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA